

NOIZ BILDU UZTA?

Baratzean lan egiten dugunean sortzen zaigun zalantza izaten da noiz bilduko dut uzta? Eta askotan jasotzen dugun erantzuna izaten da: 41 egun, edo 15 egun... baina, ez da beti horrela izaten, ereindakoaren arabera, tokiaren arabera, klimaren arabera izaten baita.

Urte sasoiari izandako eguraldiak uzta baldintzatuko du; izan ere, horren arabera izango baita gure landareek jasotako ura, argia, tenperatura... eta hauen gehiegizko edo gutxiegizko kopuruek uzta baldintzatu dezakete.

Adibidez, kolpe berodun udaberriek brokoliaren lorea goratzen dute eta buruxka horixkak azaltzen dira. Edo udaberri hasiera hotza eta euritsua baldin bada, gure udako uzta atzeratuko da beranduago landatu edo erein dugulako, eta ondorioz, barazkien hazkuntza-zikloa mozten da.

Bestalde, konturatuko zineten bezala, labore bakoitzak bere garapen-ziklo propioa dauka eta **horregatik ziklo luze edo ziklo motzeko laboreak bereizten ditugu**. Adibidez, erre-fautxoak biltzeko hilabete baino gutxiago behar da eta tomateak aldiz, landatu eta 2-3 hilabete behar ditu. Gainera, barazki bereko barietate desberdinak ditugu: goiztiarrak esaterako eta noski, hauek lehenago bilduko ditugu. Hau gutxi balitz, kolpetik uzta emango diguten laboreak ditugu (azak buru bakarra ematen du) eta beste batzuek aldiz, asteetan zehar modu mailakatuan emango dute uzta (piperrak modu progresiboan emango dizkigu piperrak).

Labore bakoitzak behar duen denbora zehazteko taula

EGUNAK	LABOREAK
20-30	Berroak, erre-fautxoak
40-50	Kuiatxoa edo kalabazina, ziazerba edo espinaka, letxuga, arbia
50-60	Zerba, brokolia, letxuga, luzokerra edo pepinoa, azenarioa
60-70	Alberjina edo berenjena, aza, kanonigoa, endibia, ilarra, erremolatxa
70-80	Eskarola, baba, artoa, perrexila, piperra, tomatea
90-100	Apioa, kuia edo kalabaza, tipula, bruselazak, meloia
100-120	Baratxuria, porrua
120-140	Batata, dilista,
150-170	Orburu edo alkatxofa

¿CUÁNDO COSECHAR?

Cuando trabajamos la huerta una de las inquietudes que nos suele abordar entre otras ochenta mil, suele ser la de ¿Cuándo recolectare el fruto de mi esfuerzo? Y normalmente esperamos escuchar una formula sencilla y fácil de aplicar como en 41 días, o en 15 días... pero no es así como siempre todo depende del cultivo, del lugar, del clima ...

El tiempo que tengamos durante una estación suele influir en la cosecha ya que de ella depende de que nuestras plantas tengan suficiente agua, luz, temperatura... y los excesos y la escasez pueden condicionar la cosecha. Por ejemplo una primavera con golpes de calor puede hacer subir a flor a los brócolis y empiezan a salir cabezuelas amarillas. O puede darse un comienzo de primavera frío y lluvioso que retrase nuestra cosecha de verano porque plantamos o sembramos tarde y en consecuencia acorta el ciclo de crecimiento de las hortalizas.

Por otra parte como algunos se habrán dado cuenta que cada cultivo tiene sus propios ciclos de desarrollo por ello solemos distinguir cultivos de ciclo corto y ciclo largo. Por ejemplo el tiempo para recolectar un rabanito suele ser de menos de un mes desde que se siembra mientras que una tomatera empieza a dar frutos a partir de los 2-3 meses desde que se planta. Además se da la singularidad de que de una misma hortaliza nos podemos encontrar variedades de la misma más precoces y por tanto que se pueden cosechar antes.

Si esto fuera poco tenemos cultivos que nos dan la cosecha de golpe (la berza da una sola cabeza) y otros que dan una cosecha escalonada (el pimiento va dando pimientos de forma progresiva) a lo largo de semanas.

Tabla orientativa para identificar el tiempo que requiere cada cultivo para cosechar desde que se haya sembrado:

DÍAS	CULTIVO
20-30	Berros, rabanitos
40-50	Calabacín, espinaca, lechuga, nabos
50-60	Acelga, brócoli, lechuga, pepino, zanahoriaoa
60-70	Berenjena, berza, canonigo, endibvia, guisante, remolacha
70-80	Escarola, haba,maiz, perejil, pimiento, tomate
90-100	Apio, calabaza, cebolla, col de bruselas, melón
100-120	Ajo, puerro
120-140	Cardo, boniato, lenteja
150-170	Alcachofa